



## BALOREZKO PROPOSAMENAK

Azken urte hauetan aldaketa klimatikoaren eraginez aldaketa bortitzak izan dira gizartean. EUSTATen esanez aldaketa klimatikoari buruzko kezka 2017tik 2019ra %12a igo da, %39tik %51ra. Pertzepzio hau 18 eta 29 urteko gazteen artean handiagoa da, %70ekoa. Hau turismoan ere nabarmendu da. Jendearen bizitza-ohiturak pixkanaka aldatzen ari dira, eta turismo ohiturak ere. Ingurumenarekiko atseginak diren produktuen edo zerbitzuen nahiak gorakada handia izan dute. Adibidez ibilgailu elektrikoaren sektorea asko hazi da. Gure zerbitzuek sektore honen gorakadaz aprobetxatzen dira.

Gure enpresak eskaintzen duen zerbitzuaren baliozko proposamenak honako hau da. Hasteko garrantzitsua da jakitea gu gure lehiakideengandik alderatzen gaituena kokapena dela. Gure zerbitzu bera eskaintzen duten enpresarik ez dago guk lan egiten dugun eremuan. Gure eremutik gertuen dauden enpresak, bizikleta eta bestelako ibilgailuen alokairu zerbitzuak eskaintzen dituztenak, Irunen eta Hendaian daude. Hau Hondarribian gertatzen ari den turismoaren hazkundearekin batera, leku paregabea egiten du Hondarribiatz gure enpresa kokatzeko. Azken urte hauetan Hondarribian turismoaren hazkunde izugarria egon da, hau herrian sortzen diren negozioetan ikus dezakegu.



Bestalde gure enpresak perstonalizazioa handia eskeintzen die gure bezeroei. Hasteko bi plan mota dauzkagu: Lehenik eta behin herriko plana, Hondarribitik gida batekin egiten den ibilbidea herriko leku garrantzitsuenak bisitatzen, alde zaharra, portua, Juan Carlos paradorea, eliza eta abar bisitatzen. Hau plan lasaia da familiarekin egiteko aproposa eta gida edo gida gabe egin daiteke. Bestalde mendiko ibilbideak dauzkagu, hauek Hondarribiko eremu naturaletatik doaz. Hainbat leku ezberdin bisitatu daitezke, Jaizkibel, Guadalupeko Eliza, Higer Itsasargia edo Talaia ibilbidea itsasertzetik joaten dena. Plan hauek segitu nahi ez badira bizikletak orduka ere ahal dira alokatu libreki ibiltzeko.



ONYARBIKE



MOVING AT THE SPEED OF ONYARBIKE

Ibilbide hauek egiteko mota guztietako txirrindak ditugu, elektrikoak, normalak, mendikoak, paseorako txirrindak eta abar. Baita ere patinete elektrikoak dauzkagu bezeroen zerbitzura. Familiarekin badatozte bestelako ibilgailuak ditugu umeentzako.



Giden bidez bezeroak gure herriaren eta bere inguruen historia ikasiko dute modu dibertigarri eta osasuntsu batean. Hauek herrian zehar gertaera historikoetan zentratuko dira, aldiz mendikoak egoera geologiko eta biologikoetan.

